

“BILBAO 2022 PLANA: COVID-19AREN ONDORIOEN AURKAKO 21 NEURRIAK” DELAKOAREN BARRUAN BILBOKO MERKATARITZAN ZUZENEAN KONTSUMITZEA SUSTATZEKO BONUEN PROGRAMAKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- ZIOEN AZALPENA

Bilbao Ekintza, EPEL (aurrerantzean, Bilbao Ekintza) Bilborako ekonomia- eta gizarte-jarduera sortzea sustatzen duen udal-erakundea da; horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, eta laneratzeko aukerak hobetzen ditu. Bere helburuen artean dago, halaber, hiria kultura- eta aisialdi-helmuga gisa nazioarteko turismoan kokatzea eta sustatzea, hirian aberastasuna dinamizatzen eta sortzen lagunduz.

COVID-19k sortutako osasun-krisiak, 2020ko ekitaldian, aurretik genuenaz besteko errealitate bat erakutsi zuen, eta geldialdi bat eragin zuen jarduera ekonomikoan. Horren ondorioz, jarduera koordinatua egin behar izan zen, osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi horren ondorioei aurre egiteko. Bilboko Udalak, egoera hori ikusirik, 2020ko maiatzaren 8an BILBAO AURRERA Plana onartu zuen, Bilboko Gizarte Kohesiorako, Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko eta Kulturarako Neurrien Plana. 15 milioi euroko aurrekontua du. Pandemia-egoerak bere horretan jarraitzen duenez, eta horrek tokiko gizarte- eta ekonomia-sarean dituen ondorio negatiboak areagotu egin direnez, AURRERA 2021 PLANa egin da, eta orain “BILBAO 2022 PLANA: COVID-19AREN ONDORIOEN AURKAKO 21 NEURRIAK”, udal-taldeek 2022ko urtarrilaren 13an aho batez izenpetua.

Ekonomiaren eta enpleguaren esparruko neurrien barruan, BILBAO 2022 PLANA Bilbon zuzenean kontsumoa sustatzeko programa bat jasotzen du BILBAO BONUen bitartez. Hain zuzen ere, eragin handiena izan dezaketen sektoreetan aplikatu nahi

Proposamena Bilbao 2022 Planaren Jarraipen Batzordean planteatu da, eta batzordea osatzen duten talde guztiak ados agertu dira. Aparteko neurri berri bat da, eta ekitaldi

honetako COVID-19aren aurkako planean jasotako ekintzekin eta aurrekontuarekin egin du bat.

Azaldutakoa oinarri hartuta, deialdi honen inguruabarrek Administrazio Kontseiluaren alde aitortutako eskumenak erabiltzea eragozten dutela kontuan hartuta eta Bilbao Ekintza EPELeren Estatutuen 10.3. artikuluari jarraikiz, Bilbao Ekintzako Presidentetzak Bilboko merkataritzan zuzenean kontsumitzea sustatzeko programaren deialdi hau onetsi du 2022ko apirilaren 1ean.

2.- PROGRAMAREN XEDEA ETA HELBURUAK

“BILBAO BONUAK” bonu-sistema arautu nahi du programak, herritarrek Bilboko establezimenduetan erosi dezaten bultzatzeko asmoz, eta, horri esker, udalerriko merkataritza-sektoreei suspertzen lagunduko zaie.

Hori horrela, Bilbao Ekintzak, programaren bitartez, hirian zuzenean kontsumitzea sustatu nahi du pandemiagatik kaltetuen izan den sektoreetako batean enplegua eta ekonomia suspertzeko, Bilbo hiri bizia eta dinamikoa izan dadin.

3.- PERTSONA ONURADUNAK

Programa honen onuradunak izango dira Bilboko Udalak Bilbao Ekintzaren bidez salgai jarriko dituen bonuetako bat ezarritako bitarteko eta bideen bidez eskuratzen duten 18 urtetik gorako pertsona fisikoak.

Bonuak banatuko dira NAN edo AIZ zenbaki bati lotuta; zenbaki bakoitzarekin, guztira, 5 bonu eskuratu ahalko dira.

Bonuak eskuratzen dituzten pertsonak hurrengo apartatuan adierazitako zenbatekoa ordaindu beharko dute, eta Bilbao Ekintzak egiten duen ekarpena izango da dirulaguntza, funts galdurako eta itzuli beharrik gabekoa.

Herritarrek ordaindutako zenbatekoaren eta Bilbao Ekintza egindako ekarpenaren baturak zehaztuko du bonuaren balio faziala (balio osoa).

4.- DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK ETA BONU-MOTAK

Bilbon zuzenean kontsumitzea sustatzeko programan, BILBAO BONUAK, bonu bakarra egongo da, jarraian jaso den zenbatekoarekin.

Diruz lagunduko diren gastuak izango dira oinarri hauetan xedatutako ondorioetarako honako honekin bat etorritik aplikatzen den hobaria:

BONU MOTAK	BONUAREN PREZIOA	UDALAREN EKARPENA	BONUAREN BALIO OSOA (FAZIALA)
1. MOTA	15,00 euro	15,00 euro	30,00 euro

5. FINANTZAKETA

Bonuak finantzatzeko gehieneko kreditua 954.045,00 euro izango da, honela banatuta:

Honela banatuko da bonuetarako ezarritako zenbatekoa:

810.938 euroko kredituaren % 85 Bilboko barrutien arteko banaketa proportzionalaren irizpidearen arabera banatuko da, horietako bakoitzean bonuen salmenta-data jarri aurretik atxikitako establezimenduen kopurua kontuan hartuta.

Gainerako % 15, 143.107 €, Bilboko osorako erabiliko da, establezimenduetan bertan bonuak erosten dituzten 65 urtetik gorako pertsonentzat.

Hala ere, programa indarrean dagoen bitartean, Bilbao Ekintzak proportzio hori aldatu ahalko du, baldin eta behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak badaude eta hala egitea komeni bada.

6. PROGRAMAREN INDARRALDIA

Onuradunek programa hasten denetik 2022ko ekainaren 30era arte erosi ahal izango dituzte bonuak, edo horiek agortu arte. Amaiera aldatu ahal izango da Bilbao Ekintzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez, eta ebazpen horren berri emango da deituko den hurrengo administrazio kontseiluan. Aldaketaren berri emateko hasierako deialdiari egin zitzaion publizitate bera egingo zaio.

Bonuak herritarrei salgai jartzeko orduan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saiak egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz hartzen dituen prebentzio-neurri espezifikoak hartuko dira aintzat, bai eta programa ondo garatzea edo programaren helburuak hobeto lortzea eragiten duen beste edozein inguruabar ere.

Bestalde, gastua, gehienez ere, 2022ko ekainaren 30ean egin beharko da, eta data horren ostean egindako erosketak ez dira diruz lagunduko. Datari dagokionez, fakturan/tiketean jasotakoa beteko da, eta ez da onartuko geroagoko fakturarik.

Hala ere, Bilbao Ekintzak programaren indarraldia luzatu ahal izango du, Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez, baldin eta behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak badaude eta hala egitea komeni bada. Lehenengo paragrafoan jasotako kasuan bezala, erabaki hori Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaio eta argitaratu egingo da.

7. ESTABLEZIMENDUAK ATXIKITZEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK:

Atxikitako erakundeak

Kanpaina honi atxikitako erakundetzat jo ahal izango da sektorearen barruan enpresa-jarduera duen pertsona fisiko edo juridiko oro, baldin eta Bilbon establezimendu ireki

bat badu eta agiri honen I. eranskinean zerrendatutako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigraferen batean alta emanda badago.

Salbuespen gisa, aipatutako eranskinean adierazitako beste talde eta/edo epigrafe batzuetan dauden enpresek parte hartu ahal izango dute, baldin eta Bilbao Ekintzak uste badu horien ezaugarriak eta jarduera bat datozela programa honen izaerarekin eta helburuekin.

Programa honi atxikitako erakundeak erakunde laguntzailetzat joko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera, eta arau horretan dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzat aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaie.

Kanpainan parte hartzeko prozedura.

Kanpainan parte hartzeko, erakundeak edo establezimenduak atxikitzea eskatu beharko du. Eskabideak, inprimaki elektronikoaren ereduaren arabera, Bilbao Ekintzak horretarako garatutako plataforma teknologiko honen bidez aurkeztu beharko dira: www.bonobilbao.eus

Atxikitzeko eskaerarekin batera, deialdi honen II. eranskinean zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Eskabide-orriak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat badu edo osagabeak badira, erakunde interesdunei bost egun balioduneko epea emango zaie antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotakoan akatsik egin ez badute, eskaeran atzera egin dutela iritziko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako eran emango den ebazpenaren ondoren.

Eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, bonuen kanpainan atxikitako erakunde gisa onartu edo baztertu dela jakinaraziko da, emandako posta elektronikoaren bidez.

Beste erakunde-kanpaina batzutan atxikita dauden eta baimena eman duten entitate eta establezimenduak berez egongo dira programa honi atxikita, betiere, bertan ezarritako baldintzak onartzen badituzte eta deialdian eskatzen den dokumentazioa aurkezten badute, eta eskaera aurkeztetik salbuetsita egongo dira, apartatu honetan adierazitako baldintzetan, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. 1.d) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Kanpainan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea.

Bilbao Ekintzako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez zehaztuko da establezimenduek eta enpresek bat egiteko epea hasteko eguna, eta entitatearen webgunean argitaratuko da. Atxikitze eskabideak aurkezteko epea irekita egongo da programak irauten duen bitartean.

8. BONUEN EZAUGARRIAK ETA ERABILERA-BALDINTZAK

Bonuak erostea:

Herritarrek bonuak digitalki eskuratu ahalko dituzte Bilbao Ekintzak prestatutako web-plataformaren bidez. Bertara sartzeko esteka www.bonobilbao.eus da, eta banku-erakunde elkartuaren kutxazain hauetan ere eskuratu ahalko dituzte: <https://portal.kutxabank.es/cs/Satellite/kb/es/negocios/oficinas-y-cajeros>.

Erosten diren unean ordaindu beharko dira bonuak, eta erosteko ordainketa-sistema kreditu- edo zordunketa-txartelaren eta/edo aipatutako erakundearen ordainketa-pasabidean onartutako beste edozein ordainketa-bide elektronikoren bidez egingo da.

Salbuespen gisa, 65 urtetik gorako pertsonak atxikitako establezimenduetan bertan eskuratu ahal izango dituzte bonuak. Horretarako, NANA aurkeztu beharko dute, eta erosketak kreditu- edo zordunketa-txartelaren bitartez edo eskudirutan ordaindu.

Bonuak programa indarrean dagoen bitartean erosi ahal izango dira, baldin eta finantzatzeko kreditu nahikoa badago.

Erositako bonuak itzultzea

Bonua erosteko prozesua amaitzen denean, ezin izango da itzuli edo aldatu, ezta erosketa-prozesua egin bitartean daturen bat txarto sartu edo hautatu bada ere, edo establezimendu batean trukatu diren bonuak agortu badira edo bonua kontu pertsonal bategatik trukatu ezin bada ere. Hori dela eta, erosleak du kanpaina honi dagozkion baldintzak, betekizunak eta betebeharrak aldeztatik eta osorik zein diren jakiteko ardura.

Bonuen trukea

Kanpainari atxikitako entitateen establezimenduetan trukatu dira bonuak. Eguneratutako zerrenda webgunean argitaratuko da: www.bonobilbao.eus

Bonuak erosi diren barrutiari atxikitako establezimenduetan soilik trukatu ahal izango dira.

Erabiltzaileak bonuaren QR kodea aurkeztu beharko du edo, hala badagokio, erosketa egingo duen establezimenduan inprimatutako bonuak entregatu.

Erosketa-tiketaren zenbatekoa bonuaren berdina edo handiagoa izan behar da, erosketa eta/edo kontsumizio-aldi bakoitzean oso-osorik agortzeko modukoa.

Dirua ezin izango da inola ere eskudirutan itzuli, ez erosketa egiten den unean ez bonuarekin eskuratutakoa ordaintzean zenbatekoren bat itzuli behar bada.

Erosketa-tiket bakoitzeko, gehienez ere, BILBAO BONUen lau ale erabili ahal izango dira.

BILBAO BONUAK beste administrazio batzuek eskaintzen dituzten beste bonu batzuekin izango dira bateragarriak; beraz, tiket bakarreko erosketan pilatu ahal izango dira.

Nolanahi ere, ematen den dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza eta gainerako diru-sarrerekin batera, ezin izango du diruz lagundutako erosketaren balioa gainditu.

Muga

Establezimendu bakoitzean, gehienez ere, 150 bonu trukatu ahal izango du jendeak eta 50 bonu utziko dira 65 urtetik gorako pertsoneri saltzen zaizkien bonuak trukatzeko. Muga hori handitu ahal izango da, baldin eta eskariaren egoerak hala gomendatzen badu, ahalik eta bonu gehien banatu ahal izateko.

Nola egin bonuen likidazioa Udalarekin.

Likidatzeko orduan, atxikitako entitateak plataformaren bitartez erregistratu beharko dituzte bonuak eta dagokien salmentaren tiketa edo faktura.

Udalak, Bilbao Ekintzaren bitartez, astero-astero (lehenengo multzoan izan ezik, trukeak hasi eta 15 egunera egingo delako) ordainduko die establezimenduei une horretara arte aurkezten dituzten bonuen zenbatekoa, banku-transferentziaren bitartez emandako kontu korrontean.

Bilbao Ekintzak, laginketa-tekniken bidez, bonuen aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten frogagiriak egiaztatuko ditu. Horretarako, aipatutako frogagiriak bidaltzeko eskatuko dio atxikitako erakundeari.

9. PROGRAMA OSATZEN DUTEN ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Onuradunen eskubideak eta betebeharrak

Konsumitzaile batek bonuak erosteak dokumentu honetan jasotzen diren kanpainako baldintzak onartzea dakar.

Onuradunek erosten dutenean ordainduko dute bonuaren zenbatekoa, eta atxikitako establezimenduetan nahiz enpresetan trukatu ahal izango dituzte adierazitako muga-eguna baino lehen.

Atxikitako establezimenduen eskubideak eta betebeharrak.

Establezimendu batek bonuen kanpainarekin bat egiten badu, oinarriak onartu dituela joko da, bai eta oinarrietan ezarritako konpromisoak bere gain hartzen dituela ere. Hori dela eta, Bilbao Ekintzak egiten dituen egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak onartuko ditu, eta horiek egin ahal izateko eskatzen zaion informazio guztia aurkeztuko du.

Atxikitako entitateen honako konpromiso hau hartzen dute: konsumitzaileei programaren ezaugarrien berri ematea, programa iragartzeko materialak hartzea eta establezimenduan ondo ikusteko moduko leku batean jartzea. Gainera, deialdi honetan establezimendu bakoitzerako adierazitako bonuen mugara iristen direnean kendu beharko dituzte materialak.

Establezimenduak bonua onartuko du tiketa ordaintzeko ordezkotako gisa, erosketa osorik edo zati batean ordaintzeko, eta une oro errespetatu beharko ditu bezeroari

tratatzeko berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak. Hori horrela, programa indarrean dagoen bitartean, ezin izango da bonuaren programa ezkutatu edo bonua erabiltzeko eskubidea ukatu.

Atxikitako entitateek bonuen egiazkotasuna eta baliagarritasuna egiaztatzeko konpromisoa hartuko dute, eta haiek izango dira Bilbao Ekintzan bonua baliogarria izateko beharrezkoak diren zenbatekoen erosketa-tiketa edo -faktura egiaztatzeko eta justifikatzeko arduradunak.

Kontsumitzaileei ez zaie inola ere eskudirutan itzuliko erosketaren zenbatekoaren eta BILBAO BONUaren balioaren arteko aldea, ez erosteko unean, ez erositakoa geroago itzultzen bada ere.

Kontsumitzaileak bonua erabili ondoren, entitatea baino ez da izango bonua ondo kudeatzearen arduraduna, eta salmentaren tiket edo faktura egokiarekin batera aurkeztu beharko du plataforma elektronikoaren bitartez, Udalean behar bezala likida dadin.

Iruzurrezko erabilera edo praktikaren bat egiten bada bonuekin, horrelakorik egin duen pertsona programatik kanpo uzteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, bai eta legez egokiak diren neurri guztiak ere, jasotako funts publikoak itzultzea barne.

Amaitzeko, atxikitako entitateek kanpaina egiteko aukera ematen ez dien edozein gorabeheraren berri emateko konpromisoa hartzen dute.

10.- INTERPRETAZIOA

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdia funtsean aldatzen ez duen punturen bat garatu, aldatu, egokitu edo ezabatu behar bada, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzari emango zaio

aldaketa horiek egiteko eskumena. Ondoren, horren berri emango dio administrazio kontseiluari, aldaketak egin eta deitzen den lehenengo bileran.

11. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauetan xedatutakoa beteko da

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa, eta gainerako araudi osagarria;
- Gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen I. Titulua.
- Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.